

Poesia

FELIPE JUARISTI
Piztutako etxea



erein

PIZTUTAKO ETXEA

Poesia, 25

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2014ko martxoan

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Felipe Juaristi

© EREIN. Donostia 2014

ISBN: 978-84-9746-894-7

L. G.: SS-433/2014

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Felipe Juaristi

PIZTUTAKO ETXEA



I

*Ezustekoa dena ez baduzu espero, ez duzu sekula aurkituko,
aurkitzen eta iristen zaila baita.*

HERAKLITO

Espero dena espero izatea esperantzaren esperantza da.
Egoneko egoera argia da, egonera bultzatzen du urduri.
Ez da izatearen izaera huts soila, ez da inola ere izateko jaioa;
irekiera sakona da denboran, pitzadura gogorra espazioan.
Infinituari ate itxia irekitzen dio, gau beltzari eguna ekartzen;
izen eta aurpegia ematen, bizitzeko argirik ez duenari.
Esperantza beti ertzekoa da: zeru eta lur lurrina bezala.
Espero ez dena itxarotea, esperantza alaia bainoago da,
halabeharraren trikimailua, bozkarioaren jokaldi agerikoa.
Esperantzak ilusio guztiak eraikitzen dituen indar berarekin,
halabeharrak desegiten ditu bizi lege eta muga mutuak.
Halabeharra hauslea da guztiz, mundu izutia kolokan jartzen du,
desoreka berria eraikitzen zaharra zegoen toki berean.
Jolasean hartuko du zentzurik, egonezinaren sendagai.
Espero dena espero ez izatea etsipen gorrean erortzea da.
Ezustekoa espero ez bada, ez da sekula santan gertatuko.
Hala ere inoiz edo espero bada, ez da ezusteko beharrik izango.
Uste eta esperoan bizitzea biak kontrara jarriak dauzkagu.
Uste duguna gertatuko dela, espero da atzo, orain eta gero,
espero izan dena etorriko dela bihotz zabalez uste den bezala.
Ezusteko maltzur indarrekoak, esperantza oro deuseztatzen du,
haren izaera hartaz jabetzen, inor ere konturatu gabe.

II

Maitasunak gure baitara ekartzen gaitu.

SPINOZA

1

Elur beltzak ukitutako
mendi tontorraren gainean
pasioak estreinatzen du
bere dantza xume alaia.
Biluzik ageri hodeiak;
haien besoak zabal dira,
elkar lotuz lur irekian.
Ez minik egiten huts horrek;
alderantziz, pozgarri da
bete eta huste nahi hori.
Hala bi gorputz elkarrekin
sustrairik gabeko ohean.

2

Esan dena eta esan ez dena,
irudikatua eta sekula
irudikatua izango ez dena,
bizi dena eta ahiturik dagoena,
batzen dira zure izenaren baitan.
Esaten zaitut eta galtzen zara;
ez zaitut esaten eta azaltzen,
zure osotasun bete-betean.

3

Argiak ez du ezer jakin nahi
ondoko gauza guztiekin;
nekaturik, badoa urrun;
kolore hautsia dago
ilunabarretik zintzilik,
ezagun den oro bat-batez
desegingo balitz bezala.
Itxaroten nago, oraindik;
itxaroten nago, aspaldi,
zuk noiz une hau salbatuko,
jazarka duen ahantzitik.

4

Hautsiko naiz, begiratzen badidazu.
Begiratzen ez badidazu, berdin hautsiko naiz.

III

*Ikusten dut zer den ona eta onartzen dut,
baina txarragoa dena dut egiten.*

OVIDIO

1

Gaitz egitea desira denaren aurka jotzea da.
Norbaitek esan lezake ez dela esaldi zintzoa:
norbaiten desira izan baitaiteke gaitz egitea.
Beraz, on egiten badu, bere desiraren aurka jotzen du.
Gizaki horrentzat ongia gaitza da; eta gaitza, ongia.
Nire ongia haren gaitza da; eta nire gaitza, haren ongia.
Nola atera ataka honetatik?
Poztasunaren alde jokatur.
Norbaitek esan lezake batzuentzat tristezia pozgarri dela;
eta poztasuna, tristarri.
Baina horrek ez du zerikusirik ez ongiarekin ez gaitzarekin.

2

Beharbada, ongia eta gaitza
batzuetan bat eta bera dira.

3

Behin jakin nuen zer zen ona.
Alai nintzen, eskuzabal, hitzontzi.
Bizitza beste erara nuen ikusten,
haurrak jolasten
nerabeak elkar musukatzen
eta helduak korrika aritzen diren
parkea balitz bezala.

Ni ere mutiko izan nintzen
eta jolastu,
eskuak hautsi zitzaizkidan arte.
Ni ere nerabe izan nintzen
eta musukatu
ezpainak erre zitzaizkidan arte.
Ni ere heldu izan nintzen
eta korrika egin nuen bizitzan zehar
azken maratoia balitz bezala,
ihes betean, aitortzen dut, nigandik,
oinak zuhaitz bihurtu zitzaizkidan arte.
Bizitzara itzuli nintzen gero.
Korrika aritzen naiz,
laztantzen dut ondoan dudana,
eta jolasten naiz.
Baina ez dakit hori ona ote den.